

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Elisabet Aretxabaleta Goikoetxea*

*Markina-  
Xemein,  
Bizkaia (1921)*

Aurkibidea



## Biografia



Abesua kalean jaio zen bere senitartekoen konfiteria gainean, eta bertan bizi izan zen gerra zibilera arte. Bere aitak ondoan zuen zapatari-tailerra. Bederatzi neba-arreba izan ziren, baina zazpi egin zuten aurrera. Gerra garaiak zuzen-zuzenean eragin zion Elisabeti eta bere familiari: amaren jaiotetxean, Aulestiko Etxetxun, pasa zituzten gerra garaiko bi urteak; 19 urteko neba gerran hil zen; aita zazpi urtean izan zuten preso Iruñeko San Kristobalgorfortean; osaba bat Larrinagako kartzelan egon ostean fusilatu zuten; beste osaba batek, alkatea zenak, herritik alde egin eta 15 urte egin zituen erbestean; aitaren tailerra konfiskatu zuten... Gerraostean, Aulestik Gasteizera joan zen neskame aritzeko. Handik Donostiara eta Bilbora joan zen lanbide berean jarraitzeko. Bilboko Olabeagan lanean zebilela, bertako senarra ezagutu eta bertan bizi izan zen 1989. urtera arte, jaioterrira bueltatu zen arte.

## Zintak

### MAR-014

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-11-15
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

### MAR-015

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-11-15
- **Iraupena:** 52 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Larrañaga Gisasola, Xabier

## MAR-016

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-15
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Marrubiak ostu, jolastu...

- **Erref:** MAR-014/002
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### Laburpena:

Gaztetan inguruko landetako marrubiak jaten aritzen ziren. kalean jolasten ziren: kanikaka, intxaurrekin... Dirurik ez zutenez, edozerekin jolasten ziren.

### 2. Gozo-denda eta malbabiskoak

- **Erref:** MAR-014/003
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

#### Laburpena:

Karameluak jateko ere ez zuten dirurik izaten, baina bere osabak gozo-denda izan zuen; gaur egun beste belaunaldi batek darama gozo-denda bera. Malbabiskoak egiten zituzten. Bilboko Santiagitoak modukoak ziren. Bere etxe azpian zegoen denda. Neba-arreba asko zirenez, soberan zeuden zatiak ematen zizkien.

### 3. Gerra Zibila Aulestin

- **Erref:** MAR-014/005
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:05:19. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena:**

Ama Aulestikoa zuen eta gerra han pasatu zuten. Bost neba-arreba eta ama egon ziren bertan. Beste ahizpa eta gerran hildako neba Markinan gelditu ziren aitarekin. Aitaren zapata-tailerrera larrua eskas heltzen zen. 1938. urtera arte egon ziren Aulestin. Gerra Zibilean Aulestin egon zen eta handik neskame joan zen. Mertzedeko mojek aurkitu zioten lana Gasteizko etxe batean. Bere senitarteko batzuk Gernikatik ihesi etorri ziren Aulestira.

**4. Zergatik ez zuten erre Markinako herria?**

- **Erref:** MAR-014/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Bere ustez, Markina ez zuten bonbardatu, gerrako materiala egiten zuen lantegia, Esperantza, bertan zegoelako eta izen handiko jendea bizi zelako herrian.

**5. Gerran familiako kideak banatuta**

- **Erref:** MAR-014/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:54. **Bukatu:** 00:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena:**

Adesuako gozo-denda gainean bizi izan ziren gerrara arte. Aulestin egon ostean, bere ama Markinara bueltatu zen seme-alaba batzuekin. Ordurako, beraien aita kartzelan zegoen, Iruñeko San Kristobalgo fortean egon baitzen 7 urtez. Aulestin zeudela, etxe ugarian egon ziren banatuta.

**6. Aita kartzelan eta osaba fusilatu**

- **Erref:** MAR-014/011
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Bere aita abertzale gogorra izatearren atxilotu zuten. Bere aitaren anaia nagusia hil egin zuten, eta aita ozta-ozta salbatu zen. Osaba, 1937. urtean, Larrinagako kartzelatik Deriora eraman zuten fusilatzerara. Aita Iruñeko San Kristobalgo gotorlekura eraman zuten, zazpi urtean behin ikusi zuen aita. Beste hiru markinar ere hil zituzten. Batzokian komediak egiten zituzten. Kasilde Aginagak antzeztzen zituen, artista ona ei zen.

## 7. Batzokiko komediak

- **Erref:** MAR-014/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

### Laburpena:

<p>Batzokian komedia politikak egiten ziren. Barre asko egiten zutenez, lehengusinarekin batera kalera botatzen zuten ez zelako entzuten.</p>

## 8. Hainbat batailo herrian

- **Erref:** MAR-014/016
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:23:03. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

### Laburpena:

Bere osaba izan zen gerra denborako alkatea; baina erbestera joan behar izan zuen, eta 15 urtez egon zen kanpoan. Bere aita gasolindegiko arduraduna izan zen. Komentuak-eta batailoiz bete ziren, asko boluntarioak izan ziren; horietako batzuk aipatzen ditu.

## 9. Markinar asko gudariekin ezkondu

- **Erref:** MAR-014/018
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:29:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

### Laburpena:

Markinar asko gudariekin ezkondu ziren. Bere ahizpa ere "Otxandiano" batailoiko kide batekin ezkondu zen. Gerran askori gaztetasuna joan egin zitzaien eta berandu ezkondu ziren.

## 10. Kartzelara lau joan eta bi bueltatu

- **Erref:** MAR-014/021
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:39:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Bere aitaren indultua osabaren heriotzaren ostean heldu zen. Lau joan ziren aitarekin batera Iruñeko fortera, baina bi bakarrik bueltatu ziren.

**11. Aitaren tailerra konfiskatuta**

- **Erref:** MAR-014/023
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:45:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

**Laburpena:**

Bere aita kartzelatik etorri zenean, ezin izan zuen zapata-tailerrera bueltatu, konfiskatu egin baitzioten. Ganbaran hasi zen lanean. Beste behargin bat ere izaten zuen aitak.

**12. Gerrak apurtutako bizitzak**

- **Erref:** MAR-014/025
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

Gerrak denei apurtu zien bizitza, zituzten plan edo asmo guztiak bertan behera gelditu ziren.

**13. Gerran, baserriko lanetan**

- **Erref:** MAR-014/028
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:54:27. **Bukatu:** 00:56:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Baserría » Baserriko lanak

**Laburpena:**

Gerra garaian, Aulestin zelan bizi izan ziren kontatzen du. Baserriko beharrak egiten zituzten batik bat. Aulestiko bizimodua asko gustatzen zitzaion. Askotan egunkariak banatzen zituenarekin joaten zen Aulestira eta denboraldi luzeak pasatzen zituen bertan.

**14. Zauria belarragaz tapatu**

- **Erref:** MAR-014/029
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:56:47. **Bukatu:** 00:57:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

**Laburpena:**

Soloan atzamarra igitaiarekin ebakiz gero, belarra jartzen zuten zaurian sendatzeko.

**15. Gerra sasoian artoa jaten zuten**

- **Erref:** MAR-015/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:00:44. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

**Laburpena:**

<p>Gazteak neskame eta morroi lanetan zabiltzala ez ziren gaixorik egoten, sendoak ziren. Gerran, Aulestin zeudela, arto asko jan zuten: morokila, ogia, taloa... Eguzkiak irten orduko solora joaten ziren eta berotzen hasterako beste lan batzuk egiten zituzten.</p>

**Transkripzioa**

- Zelan gaztiek egon garen krixedatan, esan leike sekulo ez giñela egon gaixorik. Bakixu zer dan hori? Suerte bat lez, ezta? Eztarriko miñe edo holakon bat, baiña bestela... Ba, hori da gaztie ta sendue egotie edo. Guk ein gendune Aulestin da artue jan, sendo! Artue. Artue ez dakixu zer dan? Bueno, batien artue eindde laban, bestien morokille, ta bestien taluek, ta bestien ogixe. Ogixe, siku-siku-sikue, gaztaie lantxeik. Horrek gaztai senduok, ebai fin-fin-fin ta haxe, armozue. Hamabixetan bazkaldu. Goixeko zazpiretan euzkixek hartu orduko, eruten giñuezan solora, ta euzkixek berotzen ebanien beste biher bat egitera: bedarra ebai, ta holan. Han ez zan egon andrazkoik. Han egon giñen nire nebie ta ni, edozenbat urte.

**16. Ezer barik etxe eske**

- **Erref:** MAR-015/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:02:17. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

<p>Bere amaren lehengusina bat errota batera ezkondu zen eta bere ahizpa han egon zen gerran. Bere ama bi ume gazteenekaz Markinara bueltatu eta ezer barik utzi zutenez, udaletxean etxe bat eskatu zuen. Elisabet eta bere neba Aulestin geratu ziren.</p>

**Transkripzioa**

-... Errotakue? Mekasuen! Mille mesede eitten oskun /eittoskun/ harek. Ha senidie gendun. Errotako mutil gazte bategaz eguen ezkondate,

lehengosiñie gure amana. Gure aman lehengosiñie ezkondu zan errota batera, seme bakarra euen. Etxekuek! Nire aitzie egon zan han, mutillek, mutil kozkorrak eukezan bi, ta harexek zaintzen. Asi ke, gu Aulestin egon giñen errepartidute: bata etxe batien, bestie bestien, danak egon biherrien leko baten.

Eta gure amak ein eban, Gerniketiek etorri zaniengure izekue, ba, -beti burrukie ta pixkat organizetan ekixena zan, eta- alde, gazte bixekin Markiña etorri. Ta jun aiuntamenture ta esan harei: "Zuek topau biher dostezue /biostezue/ nun lo ein. Itxi nozue gizon barik eta oin topau biher dostezue /biostezue/ etxie!" Ta topau ein otsen. Emon otsen /emotsen/ pixu bat, ta esan otsen /esetzen/: "Etorten bada uzaba, uzabandrie edo nahi dana dalakue, ez itxi hori etxiori". Ez eban pagetan ezebez. Eske, baeuken, ala, pagetako? Eta gero gure amai tokau jakon harek gazte bixek, berak urten biher ebala /bibala/ bihera, harei jaten emoteko. Ta guk ze ein gendun? Amari hoba zala segidu ez, danok gosiek hil ez gaitzezan, eta Aulestin geratu nire nebie eta ni. Baiñe ez geunkezan hamabost urte, ta ha zan ni baiño gaztiaue. Ama etorri zan gazte bixekaz. Gero batanbatek erosi ein biher izen eban /izeban/ ha etxie, ta kalien topetan ebanien, esaten ei otsen /esatzen/: "Zuek etxie itxi biher dostezue /biostezue/". Ta gure ama juten zan aiuntamenture, ta esaten otsen: "Ointxe itxi ein biherko dot /bierkot/ etxie, ze harek, erosi dabenak etxie, ni kalien gure nau itxi". "Ez itxi gero, Juana" esaten otsien. Baiñe eurek be ez otsen emoten ezer hari andriari. Pentsaizu, zelako lapurrek! Eurek be esan biher otsen /biotzen/: "Aiba, hau diruau". Ba ez! Harei ez otsen emoten, debalde eukittekoi baiño, erreterue, ta euren permisuz. Jente modue, e! Holakotxe jente modue euki dogu /eukigu/.

## 17. Neskame zegoela, gosea pasa zuen

- **Erref:** MAR-015/005
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

<p>Gerra Zibila Aulestin pasa ostean, Gasteizera joan zen neskame. Ez zuen Markinara bueltatu nahi izan, higuina hartu baitzion bere jaioterriari. Urtebetez baino ez zen egon bertan, goseak hil baino arinago, hanka egin baitzuen. 26 pezeta irabazten zituen hilabetean, eta etxekoek amantala baino ez zioten eman.</p>

### Transkripzioa

- Aulestittik esan dozu juan ziñela kriada...  
- Nik Aulestittik alde neban, krixeda, ikusi nebanien, ba han, klaro, hamasei-hamazazpi urte. Alde ein biher! Esan notsen: "Bueno, ni krixeda noie, eta krixeda noie, ba... eta, gaiñera, ez noie Markiñen geratzen", ze nik hartu notsen higuin bat Markiñai... baiña siñisteko baiño handixaue. Egon gure ez! Hartu ta Bittorixa, Bittorixa arte. Ta gero beti bizi izen naz ni kapitalien, ni herri batera bapez.  
- Ta zenbat denpora ein zendun Bittorin?  
- Bittorixan lehenengo ein neban urtebete, bakar-bakarrik. Ta, gosiek hil orduko, hanka eitteko kontue. Ez zan saso ikusgarrixek! Baiña ogixe

artekuek... jan ein gure zeozer, ta han ezebez. Baten sagar bat jan neban, ta bastante txarto! Ez jakuen /etxakuen/ edertuegi begittandu. Eta, bueno...

- Baiña ez ziñen egon monjakaz? Monjakaz egon ziñen Bittorin, edo nun egon ziñen?

- Ez, ez, ez! Etxe partikularra. Ha zera zan, "Registrador de... esto... ¿cómo se dice? Registrador era. ¡Casi nadie!". Alaba bixek institutura juten zien, ta harek karrera polittekin urtengo eben harek neska bixek. Valladolideko jente modue zan.

- Jateko gitxi orduen?

- Jateko gitxi? Jateko ezebez! Dana negurtute.

- Eta jornalik?

- Jornalik... Lotsatu eitten naz, baiña sasoiek ez dau... sasoie sasoie zan. Hogeta sei pezeta hillien. Hogeta sei! Ta ez otsuen emoten ezebez, amantala baiño. Pentsaizu, zelako jentie, e? Ta jente dotorie, fiñe, "formales" ta horrek danok.

## 18. Gerra aurrean mojetan euskaraz

- **Erref:** MAR-015/010
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:23:11. **Bukatu:** 00:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

<p>Eskola nazionalean ibili ostean, mesedeetako mojen ikastetxera joan zen. Bertan hainbat gauza ikasten zituzten: pianoa, euskara... Gerra aurrean euskaraz dezente samar hasi ziren ikasten irakasle batekin. Irakasle hori alarguna zen eta oso kasu arraroa zen komentua klausurakoa baitzen. Gerra Zibila hasi zenean, herria utzi eta dena bukatu zen.</p>

### Transkripzioa

Bueno, hor Mertzedian edozenbat gauza erakusten eben /erakusteben/. Erakusten eben /erakusteben/ piano, euskeraz be hasi giñen pixkat dezente samar ikesten, ze geunken profesorie, zelan zan ha, "de Almacenes Loiola", Donostikue... Ai, hori baiño baltzaue pasau jat... Hondiño, egunotan enterau naz ha alargune zala. Eta nik esaten neban: "Baiña zelan euki dabe hain ixilik ha gure profesorie alargune zala?" Ze horretarako sekule ez zan entzun konbentuetan alargunik-eta sartzen zanik. Ba, bakar-bakarrik ha gatu zan, ta esan neban: "Honek, gitxienien - lehengo baten enterau nintzenien-, orduen, la Madre Teresa, horrek Aitte Santuan permisue biheko eban /bikoban/ horra sartzeko, gitxienien". Ze konbentue zan klausurakue. Bakar-bakarrik, kontizu, gatu zan, eta emon otsen /emotsen/ erreztasune hortxe sartzeko. Ta gaiñera gerra aurretixuen hasi giñen euskeraz, beragaz, hobeto ikesten. Gerrik urten eban /urteban/ ta eurek be bai, konbentuek itxi ta ala! "todo el mundo por ahí!".

## 19. Gehinetan abarketekin, gona beti

- **Erref:** MAR-015/017
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:36:33

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

**Laburpena:**

<p>Perkalezko arropak erabiltzen zituzten. Domeketan dotoreagoa jantzen ziren eta astegunez abarketakekin. Abarketak egiten zituztenak ere bazeuden Markinan. Beltzak edo gorriak baino ez zeuden.</p>

**Transkripzioa**

- Gu gaztetan erropakin.
- Zerezko erropak?
- Ui, ba, perkalezko erropak. Erropa zera... pixkat alegriauek domeketako bat, eta oiñetakuek eta... gaiñera, ez zan jantzen honenbestien, e. Horretxek zapatilla zurixok, lonazkuek, eta "tira millas!". Domekan, oiñetakuek, zapatak eta horrek danok, kaltzetiñek eta dotore. "Ahí se acababa!" A, gerua ta hobeto, hori bai!
- Eta abarkarik edo? Abarketak?
- Abarketak, astegunien bai, abarketak be. Gaiñera Markiñen egon die abarketak eitten dittuezanak, neure lehengosiñian aittittek eitten eban, Manu Antzoteik eitten eban /eitteban/ abarketak. Beti abarketagiñen. Eta jun nintzenien krixeda, lehenengo bidez, Bittorixa, barre handixek eitten zittuen, abarketa gorrixek neukezan aldien. Ez zan eitten beste kolore batekuek. Eitten zien edo baltzak, edo gorrixek. Eta nok ez eban jantzen abarketak? Oin, badakizu ze begittantzen jatan? Hanka azpixon min emoten dabela. Begittantzen jata ha sokie, dana zera eindde dauena, ez dauken lez plantillaik ezelakoik bez, nik pentseten dot /pentsetot/ harek min eitten dabela hanka azpixon.
- Eta, goniegaz beti?
- Bai, hori bai! Barrue gonie, ze bestelan hanka bittartien sartu eitten jatzu, erropie, ibillieran. Hauxe eitten jatzu, "meterse dentro".
- Baiña prakarik sekule ez dozu jantzi?
- Ez gero! Ointxe be ez dot gure jantzi nik. Hor deuket...

**20. Santa Eufemia eguneko erromeria**

- **Erref:** MAR-015/021
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:42:18. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Santa Eufemia egunean erromeria handia ospatzen zen Markinan.</p>

**Transkripzioa**

- Santa Eufemi egunien eitten zan hamen erromerixa haundixe. Aulestiko ermittie da ha, baiña erromerixaik haundixena hamentxe eitten zan. Hamen, Markiñen eitten zan hori.
- Nun?
- Ba, beittu, batzuetan hantxe, geure etxie... horixe konfitterixian aurrien dauen hutsunie? Ba, kotxe gitxi ibiltten zan lez, ta nahi badozu badao bidie

zeretik juteko, besteko leko batetik, eta hortxe. Ta oin aiuntamentuan aurrien ein leike ederto. Ha be aberatsen etxie izendakue da, e! Mugartegi. Ikusten dozu /ikustozu/?

## 21. Markina aberatsen herria zen

- **Erref:** MAR-015/022
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

<p>Markina aberatsen herri izan da, terrenoa asko zituzten. Urkijo kondea "kotxeretan" bizi zen.</p>

### Transkripzioa

- Markiñe izen da aberatsen herrixe. Edozenbat herri, eta han beherutz, gaur "Escuelas Públicas" dan tokixe be, Barón de Areizaga bizi zan han. Beste aberatsen batzun zera izen da, terrenue ta dana.

- Eta hemen egon die kondiek eta?

- Hamen kondie bizi izen da, kotxerapetan, "en las cocheras" ein otsen piso txiki bat berantzako. Hondiño ez da denpora asko hil zan ha.

- Ze konde zan?

- Seme-alabaik ez eben euki hor palazixue ein ebenak /eibenak/, eta lobie izen da.

- Baiña ze titulu? Conde de... dónde?

- Ba, Conde Urkijo. Hori finka danorren uzaba. Oin ez dakigu "la BBK no, pero la BBVA" pentseten dot /pentsetot/ dala "el que tiene cargo". Egoten da, e, "un guardia jurado", txakur bategaz han, "haciendo el giro, el paseo".

## 22. Corpus Christi prozesioa

- **Erref:** MAR-015/027
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

### Laburpena:

<p>Markinan Corpus Christi prozesioa egiten zen. Fraideetatik ere irtetean ziren prozesioak, komentua eta nobiziotza zen-eta.</p>

### Transkripzioa

Bueno, el Corpus Christi eitten zan, bastante prozesiño ederra gure sasoién. Holan, bedar usain fuertie deukena bota pasetan zan lekutik prozesiñoie ta. Oin horrek danok ez die eitten, ez dau /eztau/ prozesiñoik oin. Jentie jutén danien jutén da elixara, edo ez da jutén. Hortxe amaitzen da oingo prozesiñoiek eta oingo gauzak. Lehen bai, saillien, saillien prozesiñora. Hamentxe Karmengo praillietan be bai, urten ta bueltan han, bertan plazan ein buelta bat eta, konbentue zalako. Gaiñera, hori be "ha

sido noviciado", e! Ta hor edozenbat gaztek eitten eban euren, zera, egon biherra, edo praille sartu edo ez, "noviciaos".

### 23. Garizumako Via Crucis-a

- **Erref:** MAR-015/028
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:48:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

#### Laburpena:

<p>Garizuman Via Crucis egiten zen, belaunikatuta errezatu eta lurrari mun egin.</p>

#### Transkripzioa

- Eta, Garizuman?  
- A, Garizuman, ba, beittu, Via Crucis, belaunikotu ta errezau, ta behien mun ein lurrien ta atza zutundu ta atza belaunikotu, ta errezau ta horrek danok. Gaur bapez! Zutunik eitten die. "Los Via Crucis". Eitten die zutunik, makurtu barik, eta tolostu barik belaunek.  
- Baina, noz emoten zan mun, eta noz erreza, ze orduten edo?  
- Ez, hori izeten da, hiru bider edo eitten dienien, ba laugarrenien mun ein lurrai. Horrek amaittu zien, e! Ez die bape eitten. Eitten dienien eitten dituez /eitteittuez/ zutunik, suabe-suabe, eta amaitzen da.  
- Baiña egunero eitten zan hori?  
- Keba, hori Garizumako denporan, astien behin edo, juten zarenien. Barixekuetan esaten [zendun]: "Ba! gaur barixekue, gaur kurutzetakue ein biher die". Ta eitten zien, elixako zerien... Elixakue eitten zan bittartien.

### 24. Kandelario eta San Blas

- **Erref:** MAR-015/029
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:48:49. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna

#### Laburpena:

<p>San Blas egunez kordoia eta jatekoa bedeinkatzen zen, baita elkarrizketa garaian ere oraindik. Kandelario Egunez kandelak bedeinkatzen ziren trumoi egunetarako.</p>

#### Transkripzioa

- Eta, elixan kandalaxo eta eitten zan hemen, Kandelarixu egune?  
- Bai! San Blas eta, hondiño be hori eitten da. San Blas egunien jun eta erun kordoi zati bat eta bedinketu, eta erun bedinketzeko gauza batzuk, jateko. Horrek danok hondiño be eitten die. Eitten die hamentxe, moja mertzedarixen elixan, ze hor egunero hondiño mezie dago, e? Mezie esaten da.

- Bai, baiña zure gazte denboran, Kandelarixo ta eitten zan?
- Dana, dana. Klaro, nire saso denporan elixan gauza asko eitten zien.  
Asko!
- Ta Kandelarixo egunien zer eitten zan?
- Ba, kandelak erun bedinketzeko, ta gero urte guztixen, iguel, ba, zera euenien... "tormenta y así", ba ixotu, euki kandela bat bedinketutakue, orduntxe egunetan.
- Trumoiek eta...
- Bai, ixotu. Eta bakotxak "lo que se le ocurra". Baiña euki etxien kandela bat bedinketuikue.
- Ze zan, protejiduteko?
- Bai. Holakotxe gauzak eitten die.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-19*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com